



AMALGAMA

2021

AMALGAMA PLATAFORMA
BIRTUALA

MATIZ ELKARTEA
2021eko abendua

ZER DA AMALGAMA?

AMALGAMA plataforma Matiz elkarteak diseinatutako kulturarteko tresna birtuala da honako proiektuaren bitartez: **“Kulturartekotasunaren gure eredia eratzen: euskal biztanleria plural eta inklusiboago baten alde”**. Gune honetan baliabideak eta ekintzak aurki daitezke, askotariko materialak eta esperientziak partekatu eta Euskal Autonomi Erkidegoan Euskadiko kultur-aniztasunaren alde lan egiten duten erakundeek lana ezagutu. Helburua biztanleriari arlo honetan lan egiten dugun erakundeek lanaren berri ematea da, baita ezagutza eta esperientzien elkar trukaketa sustatzea bikoiztasunak ekiditeko eta ikerketa eta sarean lan egitea eta eragileek arteko lankidetzak laguntzea partekaturiko hausnarketa ardatz hartuta lan egiteko ere.

Gune birtual hau doako tresna da eta kultur-aniztasunaren alde lan egiten duten euskal hezkuntza eta gizarte-eragileek eta jatorri ezberdineko pertsonen inklusioaren alde lan egiten duen euskal biztanleriaren zerbitzura dago. AMALGAMAK ekintza hauen eragina handitu nahi du, baita arlo honetan guztion artean egiten dugun lanari ikusgaitasun handiago eman ere.

AMALGAMA plataforma birtuala 2014ko abenduaren eta 2015ko irailaren arteko epean (10 hilabete) diseinatu eta programatu izan da. Momentu horretatik aurrera, plataforma funtzionala eta teknikoki operatiboa izan da. Bere helburua lortzearen, plataformak web orrialdearen egitura osatzen duten honako 7 atal hauek ditu:

- Plataforma: AMALGAMA plataforma birtuala sortzean lortu nahi diren helburuen aurkezpen laburra eta plataforman lan egiten duten eta koordinazio, komunikazio eta kudeaketa ardurak dituzten lan taldearen aurkezpena.
- Eragileak: (unibertsitateak, elkarteak, herri-administrazioa, hezkuntza-zentroak, adituak, etab.) plataformaren kide egin diren eta kultura-aniztasunaren arloan politikak sustatu, ekintzak egin eta hausnarketa sorrarazten dituzten eragileak. Atal honetan erakunde hauek kultur-aniztasunaren alde egiten duten lanaren berri ematen da, baita beraiekin harremanetan jartzeko informazioa eskaini ere.
- Proiektuak: AMALGAMAREN kide diren eragileek burutu dituzten esperientziak agertzen dira atal honetan. Proiektuak honela sailkatzen dira: gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa, hezkuntza eta prestakuntza, kultura-trukea, etab.
- Agenda: atal honetan AMALGAMAREN kide diren eragileek/erakundeek antolatutako jarduerak agertzen dira (kurtsoak, mintegiak, jardunaldiak, etab).
- Laguntzak: eskuragai dauden bekak, diru-laguntzak edo sariak.
- Enplegua: plataforma osatzen duten eragileek eta erakundeek eskaintzen dituzten lan-postuak eta boluntarioria aukerak agertzen dira.
- Mediateka: atal honen bitartez formatu digitalean dauden baliabide ezberdinak, bai bibliografikoak bai multimedia-motakoak, daude eskuragai kultura-aniztasunaren arloan ikasketa prozesuak hasteko, hausnartzeko eta lan egiteko. Baliabideak honela daude sailkatuta: argitalpenak, ikus-entzunezko materiala eta material didaktikoa. Gaiaren arabera ere daude ikusgai: kultura-aniztasunaren kudeaketa, enplegua, hezkuntza, generoa, etab.
- Albisteak: hasierako orrialdean kultura-aniztasunaren arloan Euskadiko komunikabide nagusiek argitaratu dituzten albisteen atalera sar gaitezke.
- Foroa: plataformaren kide diren biztanleria eta hezkuntza eta gizarte-eragileak foro honetara sar daitezke zalantzak, esperientziak eta ardurak elkar trukatzeko.

Atal batzuk nabarmen ditu ere bai; batek zurrumurruen kontrako ekintzekin zerikusia dutenak eta besteak errefuxiatuak lagundu eta babesteko gauzatzen diren ekintzak dituenak. Atal bietan aipaturiko gaiekin zerikusia duten eragileak, ekintzak, materialak eta berriak aurki daitezke. 2021ean, harrera-zerbitzuei eta -baliabideei buruzko atal berri bat sartu dugu. Atal horretan, udal mailan eskuragarri dauden baliabideak aurki daitezke, pertsonei gure lurraldean gizarteratze-prozesuak hasten eta mantentzen laguntzeko.

AMALGAMA hileroko buletina izaten jarraitzen du, non albiste nagusiak partekatzen diren hilero plataformaren bidez.

Horrez gain, on-line plataformak atal publiko bat eta beste bat pribatua ditu. Atal pribatura plataforman erregistratu diren erakunde guztiak sar daitezke: atal honetan erakunde bakoitzak beharrezkotzat jotzen duen eduki guztiak argitaratu ditzake, aurretiaz ezarritako irizpideak betetzen dituztelarik beti ere. Atal publikoan kultura-aniztasunari eta arlo honetan lan egiten duten erakundeei buruzko ezagutzak handitu nahi dituzten edozein pertsona sar daiteke. Argitalpen guztiak deskarga daitezke eta doan kontsultatu.

AMALGAMA plataformara lotura honen bidez sar gaitezke: www.amalgama.eus. Plataforma formatu elebidunean dago (euskera eta gaztelera).


Azkenik, azken urtean zehar, plataformaren edukien kudeaketa nork bere gain hartu du hein handiago batean AMALGAMAren parte diren hezkuntza eta gizarte erakundeen aldetik, aurreko urtearekin alderatuta. Horrela, beraiek eguneratu dute bere proiektuei, ekintzei, boluntariora edota enplegu eskaintzei eta argitaratutako materialei buruzko informazioa.

Jarraian 2021ean zehar AMALGAMA plataformaren parte diren atal bakoitzaren emaitza nagusienak aurkeztuko dira:

AMALGAMAREN JARDUERAREN EMAITZAK

2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31rarte AMALGAMA plataformaren jarduerari buruzko datuak jaso dira. Denboraldi honetan 23.000 pertsonak baino gehiago bisitatu dute AMALGAMA, horietako %12,2 behin baino gehiago sartu egin da eta saio bakoitzak hiru minutuko iraupena izan du batezbestekoz. Pertsona horien jatorriari dagokionez, honako grafiko honetan ikus dezakegu gehienak Bilbotik sartu direla web orrialdean:

1. Grafikoa: nondik bisitatu dute plataforma.



Jarraian, AMALGAMA n dauden edukiak aztertuko ditugu, aurretiaz adierazi dugun plataformaren atal bakoitza landuz.

ALBISTEAK

Aurretiaz esan den bezala, AMALGAMAk aldian-aldian eguneratu diren albisteen atala du. Guztira, 140 albiste partekatu dira 2021ean eta partekatutako berri gehienetan covid-19ak sortutako osasun-krisi egoeraren eraginari buruz izan dira, baita krisi honek 2021 urtean zehar gizarte-erakundearen jardueraren garapenean izan duen eragina ere. Halaber, pandemia egoerak eragin gogorra izan du populazio etorkinarengan eta errefuxiatuarengan nazioarteko mailan dagoen krisi humanitarioa larriagotuz. Bestalde, azken urteetan Euskadin bizi diren atzeritarren kopuruak gora egin duela eta bizilagun berri horien profilak ere aipatu dira albisteetan.


Albiste hauen izenburuak, irudiekin batera, plataforma birtualaren portadan agertzen dira eta albiste osoaren estekan sar gaitezke hauek aukeratzean. Albiste hauek AMALGAMAren sare sozialetan partekatzen dira ere bai.

ERAGILEAK

Azken urte honetan, plataforma kulturarteko bizikidetzaren alde lan egiten duten euskal eragile batzuei aurkeztu diegu. Hedatze prozesuari laguntzeko, AMALGAMA plataformari buruzko informazio zehatza duten askotariko materialak sortu dira. Hedapen prozesua sustatzearren AMALGAMA plataformako informazio zehatza duten aurreko urteetan sorturiko materialak erabili izan dira. 2021ean zehar, AMALGAMARA guztira 11 gizarte-eragile batu dira, horietako %63a Gipuzkoakoak, %27a Bizkaikoak, eta %10a Arabakoak.

Erakunde horien kategoriei dagokionez, gehiengoa elkarteak dira, etorkinen alde eta kultura-aniztasunaren arloan sentsibilizazio eta formakuntza lana egiten duten 8 elkarte. Izena eman duten erakundeen artean Gasteizko Udaleko Udal Zerbitzuaren programa bat, Gipuzkoako Udal bat eta Bizkaiko Fundazio bat aurki ditzakegu.

2. Grafikoa: AMALGAMA plataforman 2021ean erregistratu diren eragileak.



2021eko abenduaren 31n AMALGAMAko eragile parte-hartzaileen kopurua:

Administrazio publikoa	15
Elkartea	55
Fundazioa	13
Federazioa	2
Koordinakundea	1
Ikastetxea	2
Erakunde akademikoa	1
Erakunde publikoa	2
Erakunde pribatua	4
Profesional edo aditu independentea	2
Plataforma	5
Emakumeen eta feministen elkarteak	9
Jatorri etorkineko elkarteak	7
	GUZTIRA 118

BOLUNTARIOTZA

Azkenik, eragileen artean AMALGAMAN egun boluntario lez lan egiten duten pertsonak ere daude. 2021 urtean, aurreko urtean bezala, plataformaren boluntario taldean ez dira aldaketarik egon, batez ere covid-19ak sortutako egoera dela eta. Plataforman parte hartzen duen boluntarioek AMALAGAMA kulturarteko espazioaren dinamizazioaz eta kudeaketaz arduratzen dira. Edota agendan argitaratzen diren hainbat jardueretara bertaratuz AMALGAMAko erreportari lez, baita jarduerari buruzko albiste laburrak idatziz ere, ostean AMALGAMAko albisteen atalean eta sare sozialetan partekatzen ditugularik.

2021ean, boluntarioetako batek egindako erreportaje bat argitaratu da, uztailean plataforman parte hartzen duen erakundeetako batek egindako jarduera birtual bati buruzkoa.

1. irudia: uztailen argitaratutako erreportajea


 PLATAFORMA ERAGILEAK PROIEKTUAK AGENDA LAGUNTZAK ENPLEGUA MEDIATEKA EUS
 [Erregistra](#)

[sartu](#)

Home > Albisteak > REPORTAJE AMALGAMA SOBRE II ESCUELA ANTIRRACISTA VIRTUAL. Sesión 16 de julio de 2021: "Como diseñar contenidos para una comunidad antirracista".

Albisteak

REPORTAJE AMALGAMA SOBRE II ESCUELA ANTIRRACISTA VIRTUAL. Sesión 16 de julio de 2021: "Como diseñar contenidos para una comunidad antirracista".

Itziar Eguzkitza (Voluntaria)



Médicos del Mundo Euskadi ha puesto en marcha, por segundo año consecutivo, la Escuela Antirracista Virtual con sesiones en directo a través de su Instagram (@mdm.euskadi). De mayo a agosto, los viernes a las 18.00h, diez conocidos activistas son entrevistados con el fin de fomentar la reflexión crítica sobre la discriminación racial y la xenofobia.

En esta sesión de la Escuela Antirracista Virtual Mamadou Ngom, Mediador Intercultural de Médicos del Mundo entrevista a Desirée Bela-Lobedde. Desirée es escritora, activista feminista antirracista y creadora de contenido online en su propia comunidad antirracista digital.



<http://www.amalgama.eus/uploads/eventos/Reportaje%20Voluntariado%20AMALGAMA.pdf>






Aipatzekoa da 2021ean ez dela aurrez aurreko bilerarik egin boluntariotza-taldearekin, kontaktua birtualki mantendu da osasun-krisia dela eta.

PROIEKTUAK

AMALGAMAN parte hartzen duten gizarte eta hezkuntza-eragileek burututako proiektuak bere kategoriaren eta garatu diren probintziaren arabera sailka daitezke: gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa, hezkuntza eta prestakuntza, kultura-trukea, gizarte-laguntza eta arreta, orientabide juridikoa eta soziala, ikerketa eta genero-arloko berdintasuna.


Jarraian ikusi ahal izango duzuen modura, 2021ean zehar plataforman partekatzen diren proiektuen kopuruen gorakada egon da. Azkeneko urte honetan zehar, 15 proiektuei buruzko informazioa partekatu da, horietako 14 Bizkaian eta beste 1 Gipuzkoan garatzen direlarik. Proiektu gehienek hezkuntza eta prestakuntza eta kultura trukea nahi dute.

AGENDA

AMALGAMAREN agendan partekatzen diren jarduerak honako elementu hauek dituzte: jardueraren deskribapen laburra, jardueraren kartelaren irudia, hasiera eta bukaera data, helbidea eta loturak gehitzeko aukera, jarduerari buruzko irudiak edota artxiboak.

Pasaden urtean, AMALGAMAREN agendan 190 jarduera argitaratu dira, hauetatik 138 presentzialak izan dira eta 52 birtualak. Honako maiztasunarekin argitaratu dira:

3. Grafikoa: hilabetero agendan partekaturiko jarduerak.



Grafikoan ikus dezakegu 2021ean urrian partekatu zirela jarduera gehien.

Azkeneko urte honetan plataforman argitaratu diren aurrez aurreko jarduera gehienak Bizkaian (114) gauzatu dira, Gipuzkoan (15) eta Araban (9). Sailkapen hau probintzia bakoitzeko erregistraturiko eragileen arabera da, oraingoz AMALGAMAN erakunde publiko eta pribatu gehienak bizkaitarrak baitira.

Aurten, aipatu behar da aurreko urtean pandemiaren ondorioz nabarmen igo ziren formatu birtualeko jarduerak, nabarmen murriztu direla, zehazki 52 izan dira online garatutako formakuntza jarduerak.

Ildo horretatik, interesgarria da aipatzea aurrez aurre eskaintako jarduerak gora egin dutela aurten, eta pandemiaren aurreko urteetako mailetara itzuli dela.

Jardueren kategoriari dagokionez, gehienak hezkuntza eta prestakuntza arlokoak (63) eta informazio-eta/edo sentsibilizazio-jarduerak (38) izan dira.

LAGUNTZAK eta ENPLEGUA

Laguntzen atalean diru-laguntzak, sariak, bekak eta lehiaketak daude. Hauek hezkuntza eta gizarte-eragileek eta biztanleriak kultur-aniztasunari, migrazioa eta giza-eskubideei lotuta erabili daitezke. 2021 urtean zehar, 13 laguntza argitaratu dira: 5 diru-laguntza, lehiaketa 1 eta 7 sari. Laguntza gehienak estatu eta erkidego mailako deialdiak izan dira.

Urte honetan, enplegu eta boluntariotza atalean 9 eskaintza argitaratu dira, 3 boluntariotzakoa eta enpleguko 6. Hala ere, eskaintza guztiek informazio gehiagorako edo eskaintza argitaratu duten erakundeekin lan egiteko eskakizun bat edo gehiago jaso dituzte.

MEDIATEKA

Mediatekan eragileen lana, hausnarketa eta ikasketa prozesuak errazten dituzten baliabide batzuk aurki daitezke. Baliabide hauek kategoria eta gaien arabera daude sailkatuta:

Gaiak:

- Kultura aniztasunaren kudeaketa
- Haurrak, gazteak eta familia
- Giza eskubideak
- Enplegua
- Hezkuntza
- Generoa
- Osasuna
- Zurrumurruen aurka
- Arrazakeria eta xenofobia
- Immigrazioa
- Ingurune-migrazioak
- Errefuxiatuak eta babesa


Kategoriak:

- Argitalpenak: prentsa artikulua, artikulua akademikoak, azterlanak eta ikerketak, txosten zientifikoak, legeak, liburuak, aldizkariak, gaikako eskuliburuak eta gidak, AMALGAMAko plataformaren gidak.
- Material didaktikoak: gaikako aurkezpenak, koadernoak/ eduki teorikoak, lan-fitxak, web orriak, bideo-jokoak, haur-ipuak eta lan-dinamikak eta metodologiak.
- Ikus-entzunezko materialak: filmak, film laburrak, dokumentalak, hitzaldiak, lekukotzak eta jardueren dokumentu grafikoak.
- Dibulgazio zientifikoa: jardunaldietan, mintegietan, kongresuetan eta abarretan oinarrituriko materialak.

AMALGAMAko boluntariotza taldeak baliabide hauen gehitze prozesuan parte hartu du. Beraiei esker, ikus-entzunezko 15 material (gehienak dokumentalak eta testigantzak), 61 artxibo (ikerketak eta azterlanak gehien bat) eta 2 esteka (migrazioari buruzko aldizkariak gehien bat) partekatu dira.

Bestalde, baliabide gehiago dituzten gaiak **immigrazioa** (%32), **aniztasun kulturalaren kudeaketa** (%17), **arrazakeria eta xenofobia** (%13) eta **zurrumurruen aurkakoak** (%11) dira. Beste gaiei dagokienez, honako grafiko honetan ikus dezakegu bere sailkapena:

4. grafikoa: mediatekan partekatu diren materialen gaiak.



ERREGISTRATU DEN BIZTANLERIA

AMALGAMA plataforman biztanle bezala erregistratzeko aukera ere badago, "herritartasunaren erregistroa"-ren bidez. Atal hau gaiarekiko interesa edo zalantzak dituzten eta plataformaren atal guztietan sartu nahi diren pertsonentzat diseinaturik dago.

2021ean, 10 pertsona batu dira AMALGAMAN erregistraturiko herritartasunen taldera.

BULETINAREN HARPIDETZAK

Halaber, AMALGAMA plataformak hileko buletin elektronikoaren harpidetza egiteko aukera ere luzatzen du. 2017ko ekainetik aurrera aireratu izan da. Buletin horrek honako atal hauek ditu:

1. Pozten nau zu ezagutzeak: Erregistraturiko eragileen banakako aurkezpena.
2. Zer gertatzen ari da?: Hilabeteko albiste gailenak.
3. Planik gabe, ala?: Antolaturiko jardueren agenda.
4. Zure eskura: Mediatekan partekaturiko azken baliabideak.
5. Zer eskaintzen da?: Bidaltzean indarrean dauden enplegu eta boluntariotza eskaintzak eta indarrean dauden beka, diru-laguntza, sari eta lehiaketen deialdiak.

2016tik 2021erarte, AMALGAMAKo buletinean izena eman duten pertsonen kopuruak mailaka igotzen jarraitu du. Egun, buletinak 343 harpide ditu, 242 emakume, 69 gizon eta 32 erakunde.

AMALGAMAK ANTOLATUTAKO EKINTZAK

Gaur egun, plataformak bi kurtso ditu amaigabeko matrikularekin, interesdunek egitea errazteko.

➤ **ONLINE IKASTAROA: KULTURARTEKO ESPERIENTZIAK EUROPA MAILAN**

Formakuntzak dibertsitatearen kudeaketari ekiteko eta kulturarteko bizikidetzaren eta harremanen elementuei buruzko hausnarketa sustatzeko beharrezko gertatzen diren ezagutza eta gaitasun praktikoak jabetzea erraztu nahi du. Horretarako, kultura-aniztasunaren kudeaketarako funts teoriko eta gogoeta praktiko ezberdinak aurkezten ditu, bai udal-mailan bai hezkuntza-mailan.

Kurtoak nazio eta nazioarteko mailan entzute handiko aditu ezberdinen irakurketa eta ikus-entzunezko baliabideen konpilazioa eskaintzen du. Halaber, aurkeztutako eskuliburu eta gida praktikoek kultura-aniztasunaren kudeaketaren prozesu berritzaile eta arrakastatsuei buruzko informazio zehatza ematen duten esperientzia eredugarri anitzak aurkezten dute.

Kurtso honen helburu pedagogikoa hezkuntza eta udal-mailan sustatutako kultura-aniztasunaren kudeaketari buruzko prozesuen hobekuntza eta horiei buruzko hausnarketa sustatzea da hurrerapen teoriko aplikatuaren bidez, baita toki, estatu eta europar-mailan izandako esperientzia eredugarriei buruzko ezagutzaren bidez ere.

Kurtoak 3 modulu ditu:

1. modulu: Kultura-aniztasunaren kudeaketa, XXI. mendeko erronka.
2. modulu: Esperientzia arrakastatsuak kulturarteko komunitate-ekintzan.
3. modulu: Jardunbide egokiak kulturarteko hezkuntzan Europan.

Prestakuntza horren edukiak eguneratu egin dira aurren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren laguntzarekin, eta edizio berri eta eguneratu bat sortu da, gaztelaniaz eta euskaraz. Online prestakuntzaren azken edizio hau 2021eko azaroan eta abenduan egin zen.

Kurtsoaren kartela



Online ikastaroa
KULTURARTEKO
ESPERIENTZIAK
EUROPA MAILAN

MODULUAK:

- 1** Kultura-aniztasunaren kudeaketa, XXI. mendeko erronka
- 2** Esperientzia arrakastatsuak kulturarteko komunitate-ekintzan
- 3** Jardunbide egokiak kulturarteko hezkuntzan Europan

Azaroaren 1etik abenduaren 15era
Ordutegi malgua ikastaroa egiteko
Ikastorduak: 60 ordu

Matrikularen prezioa:
Amalgamako parte-hartzaileak: Doan.
Ikasleak eta langabeak: 30€
Gainerakoak: 60€

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA: info@amalgama.eus // Tel: 944 360 715 / 662 051 994

Antolatzailea:
MATIZ

Languntzailea:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
CONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ ONLINE IKASTAROA: KULTURA-ANIZTASUNAREN KUDEAKETARAKO SARRERA

Kurtso hau hezkuntza eta komunitate-arloetan kultura-aniztasunari eta gizarte-inklusioari buruzko proiektuen kudeaketarekin zerikusia duten profil tekniko ezberdineko ikasle eta profesionali zuzenduta dago. Formakuntzak aniztasunaren kudeaketari ekiteko eta kulturarteko bizikidetzaren eta harremanen elementuei buruzko hausnarketa sustatzeko beharrezkoak gertatzen diren oinarritzko ezagutza eta gaitasun praktikoak erraztu nahi ditu.

Kurtsoak nazio eta nazioarteko mailan entzute handiko aditu ezberdinen irakurketa eta ikus-entzunezko baliabideen konpilazioa eskaintzen du. Halaber, aurkeztutako eskuliburu eta gida praktikoek kultura-aniztasunaren kudeaketaren prozesu berritzaile eta arrakastatsuei buruzko informazio zehatza ematen duten esperientzia eredugarri anitzak aurkezten dituzte. Eremu ezberdinetan sustatutako kultura-aniztasunaren kudeaketa prozesuetara hurbiltzea, gerturatze teoriko eta testuinguru ezberdinetan emandako esperientzia praktiko desberdinen bitartez.

Kurtsoak 3 modulu ditu:

1. modulua: Kultura-aniztasuna.
2. modulua: Kulturartekotasuna eta globalizazioa.
3. modulua: Bizikidetzaren eremuak sortzen.

Kurtsoaren kartela

ONLINE IKASTAROA KULTURA-ANIZTASUNAREN KUDEAKETARAKO SARRERA

EDUKI TEMATIKOAK

- 1. MODULUA: Kultura-aniztasuna
- 2. MODULUA: Kulturartekotasuna eta globalizazioa
- 3. MODULUA: Bizikidetzaren eremuak sortzen

Iraupena: Hilabete eta erdi 20 ordu modulu bakoitzeko (60 ordu)

Prezioa: -Ikasleak eta langabeak: 30,00 €

- Gainerakoak: 60,00 €

- Amalgamako parte-hartzaileak: doan.

Organizazioa:
Autokotasuna

MATIZ



Con la colaboración de:
Laguntzaileak:

Obra Social
Fundación "la Caixa"



AMALGAMAREN JARDUERAREN LABURPENA URTEKA

URTEAK	Eragileak	Albisteak	Proiektuak	Jarduerak	Laguntzak	Enplegua	Mediatekak o Materialak	Erregistratutako biztanleria	Buletinaren harpidetzak
2015-2016	78	117	17	129	37	9	86	43	118
2017	29	182	3	105	22	8	44	43	89
2018	9	144	7	112	21	17	50	14	59
2019	15	172	5	209	26	26	30	17	33
2020	4	130	3	234	18	12	77	13	16
2021	11	144	15	190	13	6	78	10	28
GUZTIRA	146	889	50	979	137	78	365	140	343

SARE SOZIALAK


Bost dira AMALGAMA plataformarekin lotuta daude sare sozialak: Facebook, Twitter, Youtube, LinkedIn eta Google+. Azkenengo hirurek oraindik jarduera gutxi dute eta, beraz, Facebook eta Twitterren lortu ditugun emaitzak aztertuko ditugu 2021eko urtean zehar.

FACEBOOK: AMALGAMA (@Amalgama.eus)

Orrialde hau 2015eko uztailaren 15ean sortu zen eta 2021eko abenduaren 31rarte 780 jarraitzaile zituen, zeinetik 7k 2021ean zehar hasi zuten orrialdea jarraitzen.

Orrialdea gustuko duten pertsonen dagokionez, %77a emakumeak dira eta %23a gizonak eta gehienek 35 eta 44 urte bitartean dituzte. Halaber, gehienak Bilbokoak dira (%25,6), gero Gasteizkoak (%8,1), Donostiakoak (%2,4) eta Iruñea (%1,4).

5.eta 6. Grafikoak: AMALGAMAREN Facebooken jarraitzaileen adina eta sexua.



Orrialde honen argitalpenak egunero egin ohi dira eta gaurkotasuneko albisteak, AMALGAMA orrialdean erregistraturiko eragileek partekaturiko jarduerak eta interesgarri deritzogun bideoak edota memeak izaten dira, Euskadiko eta Nafarroako migrazioari eta kultur-aniztasunari lotuta beti ere.

TWITTER (@Amalgama_eus)

AMALGAMArek orrialdea Twitterren Facebook orrialdea sortu eta oso gutxira sortu zen, 2015eko irailean. Ordutik hona, orrialdeak 196 jarraitzaile ditu. Horietatik, 6k 2021ean batu egin ziren. Urteko azken lau hilabeteko hilabeteetan tweet-ek atxikimendu gehiago izan dute.

Guztira, 2021 urtean zehar 130 tweet baino gehiago argitaratu dira AMALGAMAKo profilean eta 21.280 aldiz irakurri, bilatu edo beste erabiltzaileekin partekatu izan dituzte. Jarraitzaileen kopuruaren igoerarekin batera, urteko lehen hiruhilabeteetan tweet gehiago ikusi ziren, zehazki martxoan 3.926 izan ziren.